

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manuel Odria Ibarguren

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea



Biografia



Azpeitiko Odria auzoko Odria baserrian jaio zen 1943an. Aita eta ama Odria Nagusikoa eta Odria Barrenakoa zituen, eta sei anai-arrebako familia ziren. Eskolan, maristetan ibili zen zazpi urtetatik 12ra bitartean. 12 urtetatik 14urtera arte, Hondarribiko seminarioan egon zen. Soldadutza egin zuen Donostian, gastadore postuan. Baserriko lanetan ibilia Landa Garapenean, eta, ondoren, elkartean zein zinegotzi aritu izan da.

Zintak

AZP-047

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-06-16
- **Iraupena:** 84 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Odriako eskolako maistrak baserriz baserri bizitzen

- **Erref:** AZP-047/003
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:04:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Odria auzoan eskola txiki bat zeukaten. Eskola hartako sistema nolakoa zen azaltzen du: maistra aste osorako joaten zen Odriara, eta baserriz baserri ibiltzen zen, aste bat pasatzen baitzuen baserri bakoitzean. Bi maistra ezagutu izan ditu Manuelek, azpeitiarrak biak.

2. Odriako familietan ume asko

- **Erref:** AZP-047/004
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:04:19. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Odrian gazte ugari ziren, familia bakoitzak gutxienez 6 seme-alaba baitzituen.

3. Odriako eskolaren azpiegiturak

- **Erref:** AZP-047/005
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:05:37. **Bukatu:** 00:06:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Odriako eskola bi baserriren erdian dago eginda.

4. Aitona eta maristak izan zituen irakasle

- **Erref:** AZP-047/006
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:06:41. **Bukatu:** 00:08:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Manuelen gurasoak eta anaia Odriako eskolan ibili ziren, baina bera ez: 7 urtera arte etxean aitonak erakusten zion, aitona baserritar ilustratua baitzen. Aitonarekin nola ikasten zuen azaltzen du. Gerora, maristetara joan zen ikastera eta han ibili zen 12 urtera arte.

Transkripzioa

- Ta zuk esan dezu ez ziñela haruntza jun eskola, nun ibili ziñen ba?
- Han ez. Nik esango dizut, zazpi urteko komuniyoa in arte etxea, aitonakin. Aitona, nik aitona nuan ni han zehar ibili naizen bezela ibilitako bat, oain esaten duen bezela, basarritar ilustraue esaten digue guri. Ta nik zazpi urte arte aitonak, egunero basarrin. Eta ni egoskorra esaten die, ta hura ni baiño egoskorro zan. Nik hainbete ontza txokolateik ikusitakoik ez da izango, o karameloik ikusitakoik: jartzen zian egunero ikasteko lezio bat, eta hura ikasi arte beti bistan karamelue o ontza txokolate bat. Ta ordun ontza txokolate bat eta karamelu umeak estimatzen zuten, ez zan oain bezela e?
- Bai oain'e!
- Eta ikasi arte, gaur ez banun ikasten bihar'e bea e? Leziyua're bai, ta karamelua're bai e? Beharko ikasi. Ta geo eskola maristeta. Maristak zien.
- Maristeta?
- Bai.
- Nun zian maristak?
- Hamentxe, plazan, zuk kotxie laga dezun gaiñekaldeko etxe hortantxe. Hortxe zian. Ta hor ibili nintzen ni hamabi urtea arte, eta gero sartu

nituzten Hondarrabin, fraille [...], hamabi urtekin Hondarrabira.
- Hamabikin?
- Hamabikin.

5. Maristetan mutilak eta gaztelania bakarrik onartzen

- **Erref:** AZP-047/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Maristetan mutilek bakarrik ikasten zuten, eta Jesuitinetan neskek bakarrik. Marista gehienek ez zekiten euskaraz; ikasleei euskaraz egitea galarazi egiten zieten, nahiz eta batzuek ia jakin ez gaztelaniaz.

6. Goizero 'Cara al Sol' plazako arkupetan

- **Erref:** AZP-047/009
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Auzoko adiskide batekin joaten zen eskolara oinez. Eskolara sartzean, egunero plazako arkupean Cara al Sol abastera behartzen zituzten. Kaletik abesten entzuten zituztenek ez zuten ezer esaten, errepresioa baitzegoen.</p>

7. Matematikak egiten eta irakurtzen jakin bai, baina gaztelaniaz hitz egiten ez

- **Erref:** AZP-047/010
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Eskolan hasterako, Manuelek bazekien idazten eta oinarrizko matematikak egiten; gaztelaniaz ez zekienez, ordea, zigorak jasotzen zituen.</p>

Transkripzioa

- Eta hori baiño, geo barrun hori baiño gogorro izaten zan umeentzako. "Por ejemplo" nik eskola juteako, jartzen bazidazun zuk idatzite zerbait nik hure idazten nun, zazpi urtekin e? Ta lau operaziyuk: "sumar, restar, multiplicar" ta "dividir" eiten nitun nik, eskola juteako, lehendabiziko aldiz eskola juteako. Eta baiño kuriosue zan, "venga, me tienes que copiar esto"; ta aurrena, "ze esan dit?" ezta arrastoik'e. Ta bueno, azkenen behintzet nolabait entenditzen zun ta hasten ziñen kopiaitzen ta kopiaitzen nun; ta esaten dit, "ahora me tienes que decir lo que pone ahí", "nei [...] diak ba", ezta arrastoik'e, ezta arrastoik'e, ta bla! igual. Ta bueno aleluia.

- Jotzen zizuen, bai?

- Bai, jata belarri ixkiñondoko bat emango zizun. Ta ni bezela denak e? Herri hontan garai hartan, oin'e, oin'e herri hontan'e erderak oso indar txikiya daka. ordun batez. ordun herrin eongo zien lau o bost erderaz zekitenak eta bestelako denak...

8. Aitonak egunero egunkaria irakurtzeko ohitura

- **Erref:** AZP-047/011
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Aitonak eskola zuen eta egunero egunkaria irakurtzen zuen. Garai hartan ez zen arrunta egunkaria erostea.

9. Zergatik jarraitu zuen seminarioan ikasten

- **Erref:** AZP-047/013
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:15:29. **Bukatu:** 00:17:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

12 urterekin Hondarribira joan zen ikastera seminaria; izan ere maristek izebari esan zioten Manuelek erraztasuna zuela ikasteko. Han ikasi zuen 18 urtera arte. Betarrandarrei buruz hitz egiten du.

10. Seminarioa joatean, bizimodua aldatu

- **Erref:** AZP-047/014
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:17:47. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

12 urterekin seminaria joan zen ikastera Hondarribira. Manuelentzat gogorra izan zen hara joatea, oinarritzko zenbait gauza oraindik ez baitzekizkien: hala nola, ohea egiten, zapatak garbitzen... Goizero mezara joaten ziren zazpietan. Berari ez zitzaion gustatzen fraide izatea; gainera, etxean bere beharra zutenez, itzultzea erabaki zuen.

11. Betarrandarren sistema pedagogiko aurreratua

- **Erref:** AZP-047/015
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Seminarioko bizimodua ona zen, serioa. Betarrandarrekin ikasi zuen, eta Frantziako sistema jarraitzen zuten haiek: ez zuten jotzen, baizik eta zigorak jartzen zituzten. Ikasleak taldeka antolatzen zituzten. Seminario hartan pentsamolde irekiagoa zuten garai hartako gainerako maisuek baino. Zigorak nolakoak izaten ziren azaltzen du.</p>

12. Seminarioko ikasgaiak eta kaligrafiaren garrantzia

- **Erref:** AZP-047/016
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:24:24. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Seminarioan gehienbat erlijioa ikasten zuten, baina horrez gain baita beste zenbait gai ere. Kaligrafiari garrantzia ematen zioten. Seminarioan hasi zen gaztelania ikasten, gerora soldadutzan, eta azkenik baserritik kanpo emandako denboran.</p>

13. Landa-garapen elkarteko lana

- **Erref:** AZP-047/018
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:27:41. **Bukatu:** 00:30:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Baserria » Baserriko lanak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

1990ean hasi zen landa-garapen elkartean lanean. Elkarteari buruz hitz egiten du: sorrera, parte hartzen zuten herriak, eginkizuna, proiektuak lantzeko eta onartzeko modua...

14. Landa-garapen elkarteko batzordea

- **Erref:** AZP-047/019
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:30:29. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak
- Aisia » Taberna giroa » Elkartea gastronomíkoak

Laburpena:

Landa-garapen elkartearen osaeraz hitz egiten du: bazkide kopurua eta batzordearen ezaugarriak.

15. Landa-garapen elkartean nola hasi zen lanean

- **Erref:** AZP-047/020
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:32:26. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak
- Aisia » Taberna giroa » Elkartea gastronomíkoak

Laburpena:

Manuel landa-garapen elkarteko kudeatzailea izan zen. Elkarteko lehendakariak beti baserritarak izan dira, eta haietako batek, Txuekak, kudeatzaile izateko lana eman zion. Lan hura hartzeagatik, baserrian zituen esne-behiak kendu zituen Manuelek eta larrekoak jarri zituen.

16. Baserrian bizi vs baserritik bizi

- **Erref:** AZP-047/021
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:35:09. **Bukatu:** 00:37:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríko bizimodua
- Baserría » Baserríko lanak

Laburpena:

<p>Landa-garapen elkartean sartu zenean lanean, Azpeitian zegoen Gipuzkoako nekazaritza-jarduera handiena. Ez da berdina baserrian bizi eta baserritik bizitzea. Gaur egun baserritar askok baserríko lana hobby moduan dauka.</p>

17. Baserríko arazo handiena lehen: azpiegitura falta

- **Erref:** AZP-047/022

- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:37:06. **Bukatu:** 00:40:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Baserria
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lehen baserrian dena eskuz edo astoekin eta idiekin egin behar izaten zen; norberak egiten zuen norberak jaten zuena. Lehen baserritarren arazo handiena azpiegiturak ziren; ez zegoen, ordea, diru-laguntzarik bideak egiteko, besteak beste. Francoren garaia pasa zenean hasi ziren diru-laguntzak ematen, bai aldundia, bai udaletxea, bai eta Jaurilaritza ere.

18. Landa-garapen elkartearen eginkizuna: kudeaketak egitea

- **Erref:** AZP-047/023
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:41:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

Baserrietako azpiegiturak egiteko, enpresak kontratatzen zituzten. Landa-garapen elkartearen eginkizuna kudeaketak egitea zen.

19. Baserrietarako bideak egiteko gastuen banaketa

- **Erref:** AZP-047/024
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:41:43. **Bukatu:** 00:44:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserrietarako bideak egiteko, denen artean ordaintzen zen obra. Ordainketa egiteko, mailak zeuden baserritarren artean, bakoitzak bere ondasunen arabera ordain zezan. Maila horiek zirela medio, ika-mikak egoten ziren baserritarren artean. Hala ere, bidea egiteko gastuen %80 erakundeek hartzen zuten beren gain. Gerora, baserritarrei diru kopuru finkoak ezartzea erabaki zuten.

20. Landa-garapen elkarteak kudeatzen zituen gaiak

- **Erref:** AZP-047/025
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:44:58. **Bukatu:** 00:46:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Ura, argia eta bideak ziren landa-garapen elkartean gehienbat kudeatzen zituzten gaiak; gerora, landa-etxeekin hasi ziren. Elkarteko Udalek bazuten sentiberatasuna baserri munduarekiko.</p>

21. Baserrietara argindarra eramateko kudeaketak

- **Erref:** AZP-047/026
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:46:44. **Bukatu:** 00:48:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Aisia » Taberna giroa » Elkarrekin gastronomikoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Udaletxeek bazuten baserri-munduarekiko sentiberatasuna eta ezagutza, baina beharrak alde guztietan zeudenez, dirua izaten zen arazoa. Hala ere, proiektu bat onartzen zenean, proiektu handia izaten zen: hala nola, argindarra eta ura pasatzea. Mendian goian zeuden baserrietara argindarra eramateko, Iberduerorekin tratua egin zuten.

Transkripzioa

- Eiten zanak eiten zan herri baten o bestin proiektu haundiyek e? Ni akordatzen naiz Azpeitin argindarra jarri zani, iya hirurehun baserri jarri zuen, zea, jarri zituen, berri zitzayon e?
- Eta zentrala hemen nun zan? O nundik...?
- Iberdrola, Iberduero, Iberduero. Ordurako hemen behe indarra aillautu zeon, industriya ta kale inguruko baserriak eta bazaukaten argi ona, baiño gora, gora zauren lehengo alantze xahar-xaharra arrastaka, erdiya txintxilika, eta haina den-den-dena berri in ber zian. Eta aillatu giñen Iberduerok zea bat itea, tratu bat itea, Iberduerok beak iten zun projektua, alta beak jartzen zun, ta transformadorik'e bai, ta geo distribuziua, eta distribuziyo hori ordaintzen zan udaletxia eta Landa-garapen aldetiken diputaziyo dirutik ordaintzen zan eta geo baserriak beak, pusketak txiki bat, eta hola in zian e?

22. Hainbat kudeaketa baserrietara ura eramateko eta bideak egiteko

- **Erref:** AZP-047/027
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:48:01. **Bukatu:** 00:50:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

Ura baserrietara eramateko egindakoa azaltzen du: ura auzo osora eramaten saiatzen ziren, eta ahal bazen, herriko ura izaten saiatzen ziren. Izan ere, herriko ura tratatu egin behar da legez. Udaletxearekin tratua egin zuten, bai urak pasatzeko, bai bideak egiteko eta mantentzeko.

23. Lanagatik bidaiatu eta kanpoko aurrerapenetatik ikasi

- **Erref:** AZP-047/028
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:50:39. **Bukatu:** 00:53:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Landa-garapen elkarteko eta udaletxeko lanari esker, Manuelek kanpora bidaiatzeko aukera izan du. 21 lurraldetara iritsi da: Kanadara eta Israela, besteak beste. Frantzian, Erresuma Batuan eta Kanadan aurreratuago zeuden hemen baino; baina haien teknologia ezin zen aplikatu hemen.

Transkripzioa

- Kanpoa're juna zea zu behin baiño gehiotan.
- Asko. Nik ibiltzeko suertea izan det nik dexente ibilli beharra.
- Beti're landa-garapen elkarte hontatik.
- Bai, bai, bai, bai.
- Noiz hasi ziñen?
- Edo bestela landetxetik'e bai.
- Noiz hasi ziñen?
- Bueno, nik larogeian o larogeita hamarrean hobeto esanda, larogeita hamarrean, baiño aurretik zeara udaletxetik. Zeatiken nik udaletxien sartu nintzan hirurogeita hemeretzi. Ta geo gehiena landa-garapenetik e? Hori bai. Urtero ibiltzen giñan, ta urtean igual bi o hiru biaje. Nik izen ditut, izen det suertia hogeita bat lurraldez iristeko. Potzuz bestaldea bakarra: Kanada; eta beste hauek danak hemen Europarako. Ta bestia Israel.
- Gehienbat zuen kanpoako biaje hoik izaten zien gero honea ekartzeko aurrerapenen bat o?
- Bai, hayek [...] enterau hayek landa-garapenak nola, landa-garapena o halako zerbait nola antolatuta zaukeben ta geo nola funtzionatzen zuten ikastea juten giñen. Ta hemen gora, ba, gure modu samarren ibiltzen zien, hor'e nekazaritza txikiya, ba... Alde haundia kentzen ziguten zeak, frantsesak, inglesak, Kanadak oaindik ze esanik ez... Haiek zien han basarri txiki bat esaten ziyoten berrehun behi zaukenai. Eta ikasi ikusitik adelantuk eta ikusten ziñuzen baiño hoiekin gertatzen zitzaigun zea: honea ezin zala, hamen ezin zala aplikau haiek zeukaten teknolojia. Hamen sei-zortzi hektareako basarri baten milla dauzkenan teknolojia ezin da aplikau, edo bostehun dauzkenana. Ezin da aplikau. Hori, hutsune hori gelditzen zitzaigun. Eskozia batea ta jun ta bi lagun, bi lagun aittonak ta beste bi gaztiak... Berrogei urte zazpiko lau lagunek eta larehun behi, bi milla ardi, ta "explotaciones familiares", "ez, guk lau lagunak artian eramaten ditugu

habek", baiño ze herramienta ze leku... Ta klaro zuk hure nahiz ta ikusi harek errez iten zula hure ezin da hamen, ezin da, hamen ezin da jarri.

24. Kanpora egindako bidaiei esker asko ikasi

- **Erref:** AZP-047/029
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:53:27. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Kanpora egindako bidaietan gauza asko ikasi zuten, ganadua tratatzeko sistemak batez ere: behiak jezteko makinak, hala nola. Lehen dena eskuz eta banan bana egiten zen.

Transkripzioa

- Hola aurreapenen bat honea ekarri zenduena ta...
- Ba beti ikesten zan, beti ikusten [...] "por ejemplo"...
- Ta fruitue eman zuna ta ikusten dezuena hari eskerrak...
- Batez ere ganaun tratamendun, tratatzeko sistemak eta... Guk asko kopiau genduna zan ikuilluko amarriek eta behiak jezteko makinak eta hola. Eske ikusten dezu makinak behiak jeiztekoak edo behiak lotzekoak edo ikusten dituzu, ta klaro, nahiz ta berrehun eon, hogeirentzako're baliyo du hayek alkarrei zatika juten die ta. Ta holako asko.
- Zuen garaien dana eskuz izango zan?
- Dana eskuz. Dana eskuz ta behi bakoitzak bere aska eta garbitu ber zendun banaka, eta geo hasi zian ba, zu, danak batea zea iten, ta banakako aska hoiek kendu ta danai.

25. Ganadua barruan edukitzeko ohitura okerra zela konturatu zirenekoa

- **Erref:** AZP-047/030
- **Iraupena:** 0:05:07. **Hasi:** 00:54:27. **Bukatu:** 00:59:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

Lehen ganadua beti lotuta edukitzen zen eta haiantzako janaria etxera eramaten zen; baina kanpora egindako bidaietan konturatu ziren okerragoa zela horrela egitea. Danimarkara joan zirenean ikusitakoa kontatzen du. Orduan konturatu ziren hemengo behiak baserri barruan egonda "ustelduta" zeudela.

26. Ganaduaren osasuna kontuan hartzen hasi zirenekoa

- **Erref:** AZP-047/031
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:59:34. **Bukatu:** 01:03:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Kanpotik ingeniariak etortzen zirenean hemengo abeltzaintza-teknikak begiratzera, barregarria egingo zitzaien. Teknika okerrak erabiltzen ziren hemen, ohituragatik soilik erabiltzen baitziren, onak izango ote ziren zalantzan jarri gabe. Behien osasunari lehen hemen ez zitzaion garrantzirik ematen, baina gaixotasunak bazituzten. Espainian ganadu guztia zegoen kutsatuta, baina gaitz horiek ez zioten behiari eragiten behin pasatakoan, nahiz eta gaixotasuna barruan izan. Asko kostatu zitzaien baserritarrei ideia horretaz konbentzitzea, baina orduan goitik beherako garbiketa egin zen.

27. Atzerriko abeltzaintza-sistemetatik badugu zer ikasi

- **Erref:** AZP-047/032
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:03:39. **Bukatu:** 01:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Danimarkan ukuiluak etxeetatik aparte egoten ziren; hala zen haien ohitura. Haien aldean, hemen luxuzko ukuiluak egiten dira; han, ordea, ganaduan egiten dira inbertsio handiagoak.

Transkripzioa

- Ikuillue bea ere...
- Nahiko garbiyek eoten zien.
- Lehengo ikuillu bat oaingo ikuillu bat, zertan ezberdintzen zien?
- Beitu, hasteko ikuilluk etxetik kanpoa. Han Dinamarkan ta behintzet ikuillu eta etxia aparte zauden beti. Gertu e? Gertu iguel egongo zien berrogei metro, o hogeita hamar metro igual.
- Arrazoi jakiñen bategatik ala ohituraz?
- Ohituraz han, eske han etxie basarriye bizitza zan hemengo txaleta bezela.
- Eta hemen berriz aldrebes.
- Hemen aldrebes, hemen ikuillue barrun, ikuillu barrun izan da hamen, han ez. Han ganau tejabana bat baldin bazan'e tejabana sentzillo-senzillo bat baldin bazan'e beti aparte zan. Eta etxebizitza etxebizitza iteko.
- Eta ikuillua bea barrutik?
- Barrutik ez die, lujoak gehio. Haiek baiño hamen geok tipo hortako ikuluk iten hasi giñenien gu, Pixkat teknikoek behartuta're bai, hayen alden ikulu lujosok iten ditugu guk e? Hemen ikuillu berriyek iten diru asko gastatzen da e? Ta zergatik? Teknikuk proiektun hura jarri dulako, eta hura itea

behartzen zaituztelako. Baiño han? Hamen Frantzia aldea ta junda zea sentzillo-sentzillo-sentzilluk e? Obrak e? Obran ta hortan oso diru gutxi gastatzen due, eta "en cambio" ganauen bai. Ganaue zaitute, tratauta, raza meioratzen ta, hortan gu aldian... Oain hamen iten da e? Ordundiken hamen asko iten da, baiña han garai hartan behintzet guregandik zamakiten bentaja, baiño hola...

28. Esne-behiak eta Gurelesa

- **Erref:** AZP-047/034
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:05:55. **Bukatu:** 01:08:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Manuelek 40 behi inguru zituenean, esnetarako ziren denak. Gurelesara saltzen zuen lortutako esnea. Esnea eramateaz Manuel arduratzen zen. Behiak jezteko, gasolinazko makina erabiltzen zuten, etxeko argindarrak ez baitzuen horrenbeste potentzia. Esnea haragia bezain diru-iturri ona zen baserritarrentzat.

29. Esnea Gurelesara ala kalera saldu?

- **Erref:** AZP-047/035
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:08:29. **Bukatu:** 01:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserritarrentzat hobe zen kalera saltzea Gurelesara saltzea baino; baina horretarako bezero finakoak behar ziren eta dena eskura saldu behar zen. Gurelesak, gainera, lehia egiten zuen.

30. Lehen elkartasuna auzoan

- **Erref:** AZP-047/037
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:11:42. **Bukatu:** 01:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Garia eta artoa idiekin egiten ziren. Artoa eskuz jorratzen zen. Auzolana izaten zen lehen. Ganaduen ermandadea zegoen auzoan, galdutako animalien gatik dirua jasotzeko. Diru-kontuak nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

31. Kanpotik ikasitako hobekuntzak hemen sartzen

- **Erref:** AZP-047/038
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:14:08. **Bukatu:** 01:16:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Kanpoan ibili izan denean denetik ikusi izan du: hemen baino hobeto eta okerrago zeudenak. Hemen 80ko hamarkadan hasi ziren nekazaritzako eta abeltzaintzako aldaketak. Makinak ekartzen hasi ziren orduan kanpotik. Baserritarrentzako diru-laguntzak ematen hasi zirenean, batzuek ez zuten behar bezala neurtu hark ekar zezakeen onura eta galtzen atera ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com